

## FUNTSEZKO SOZIJETATEAK



Gure enpresaren hornitzaile nagusitako bat PinbroGames izan daiteke, joko mahaiak ekoizten dituen enpresa da. Eskaera bat bidali diegu non gure jokoaren ezaugarri guztiak aurkeztu ditugun haiek gure ideiaren aurrekontu bat sortzeko eta guk jakiteko nolako kostuak izango ditugun, horretan oinarrituta ezartzeko gure produktu finalaren prezioa. PinbroGamesekin lan egitea gustatuko litzaiguke, produktuaren ezaugarri guztietara oso ondo egokitzen delako eta informazioa eman digutelako, aurrekontua adibidez. Halaber, sektore horretan balorazio onenak dituen enpresetako bat da.

Oraindik erabakituta ez daukagunez gure hornitzaile nagusia, beste aukera posible bat bilatu dugu, Wah Studio, ere joko mahaiak ekoizten dituen beste enpresa bat da. Haiekin ere kontaktuan jarri gara, baina ez digute aurreko enpresak, PinbroGamesek, baina erraztasun berdinak eskaini. Ez dugu uko egiten enpresa honekin lan egiteko aukera, bidaltzen dugun eskaeraren erantzuna baitugu.



Bi enpresa horiekin harremanetan jartzea erabaki dugu, geure kabuz ez ginatekeelako gai izango buruan dugun produktua ekoizteko, eta, beraz, enpresa horren laguntza funtsezkoa izango da gure enpresa aurrera eramateko. Gainera, beste enpresa batzuekin aliantzak sortuz, arriskuak murriztea lortuko dugu, eta gure negozio-eredua optimizatuko dugu. Horregatik, gehien konbentzitzen gaituen enpresa, ematen dizkiguten xehetasunen eta prezioen arabera, taula zein karten diseinu pertsonalizatuak sortzeaz arduratuko da.

Era berean, gu arduratuko gara webgunea sortzeaz, gure produktuari buruzko informazio gehigarria sustatzeko, saltzeko eta bezeroei emateko, eta hori guztia gure kuenatik joango da, beste enpresa batzuen laguntzarik gabe.

Enpresa prozesu honetan funtsezkoa ez izan arren, produktua erosleei zein beste saltzaile batzuei garraiatzen lagunduko digun enpresa bat ere beharko dugu.